

AULA / GELA

Azaroak 20
Solasaldia
More than weeds
Mikel Melero*ren eskutik*
18:00 h.
sarrera doakoa

20 de Noviembre
Charla-coloquio
More than weeds
A cargo de
Mikel Melero
18:00 h.
entrada gratuita

Zarauzko Udala

Photomuseum

Photomuseum
Argazki & Zinema Museoa
San Ignacio, 11 / P.K. 251
E-20800 – ZARAUTZ
Tlf: 943 13 09 06
photomuseum@photomuseum.name
www.photomuseum.es

Zarauzko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren babesarekin

Zerbitzuak
Artxiboa
Liburutegia
Hemeroteka
Aldizkako erakusketak
Pedagogia zerbitzua
Erakusketa iraunkorra
Ikus-entzunezkoak

Ordutegia
Asteartetik igandera:
10-14etara eta 17-20etara

Sarrera
Arrunta: 6 €
Murriztua: 3 €

Asteazken eta ostiraletan museoaren sarrera doakoa izango da

Photomuseum
Argazki & Zinema Museoa
San Ignacio, 11 / Apdo. C. 251
E-20800 – ZARAUTZ
Tlf: 943 13 09 06
photomuseum@photomuseum.name
www.photomuseum.es


Con el patrocinio del Ayuntamiento de Zarautz, de la Diputación Foral de Gipuzkoa y del Gobierno Vasco

Servicios
Archivo
Biblioteca
Hemeroteca
Exposiciones temporales
Servicio pedagógico
Exposición permanente
Audiovisuales

Horario
De martes a domingo:
10 a 14 y 17 a 20 horas

Tarifas
Normal: 6 €
Reducida: 3 €

Los miércoles y los viernes, la entrada al museo será gratuita



Mikel Melero
More than weeds

2026ko azaroaren 3tik abenduaren 13ra
Zabaltzea: azaroaren 3an, 10:00etan

3 de noviembre - 13 de diciembre de 2026
Apertura: 3 de noviembre, 10:00 horas

1993tik Argazkigintzaren alde

Photomuseum
Argazki & Zinema Museoa
Zarautz

kutxa FUNDAZIOA







MORE THAN WEEDS

Erakusketaren titulua argazkiak egin ondoren bururatu zitzaidan, artikulu bat irakurri nuenean Londresko *More than weeds* mugimenduaren gainean. Mugimendu horren kideak, izan ere, espaloietan kleraz idazten aritzen dira hiriko artesietan eta tokirik harrigarrienetan berez sortzen diren landareen izenak, eta gero bisita gidatuak ere antolatzen dituzte, jendeak haien berri jakin dezan.

Irakurri nuenean, konturatu nintzen nere argazkietan ere, basa-landare horiek izaten zirela protagonista, orokorrean denboraren joanak testura emandako hondoaren gainean bakarturik. Eta zera pentsatu nuen: mugimendu horrek landareen nortasun botanikoa erreibindikatzen zuen heinean, nik nere lanen motibo plastiko bihurtu nituela.

Argazki hauek, oro har, leku arrunt, interesik gabekoetan, hartuak dira, inolako arretarik jarri gabe pasatzen garen horietakoetan. Batzuk leku kaotikoak eta bereziki utziak dira, hala nola autopistako zubipeak.

Baina argazkiok ez dituzte toki horiek dokumentatu nahi. Haietatik osagai estetikoak hartzen dituzte, hondo testuratuak, giza presentziaren arrastoak denborak ezabatu duen grafitiak, edo landareak berak, inork kontrolatu gabe libre hazten direnak; baina emaitza, halere, hartutako tokiaren kontra-kontrakoa da. Kaosean eta anabasan, konposizio hauek oreka eta edertasuna bilatzen dituzte.

Azken finean gauza ttikiak, xumeak, etxekoak erreibindikatzen dira. Etenaldia egiteko gonbidapena da, lekuan gelditu eta askotan oharkabean pasatzen zaizkigun elementuei begirada oharti bat ematea.

Erakusketan ikusgai gramaje handiko paperean inprimitutako argazkiak daude, azalera matea eta grabatu antzeko testuradunak. Garrantzitsua zen paperak gorputza izatea, irudien testurekin jarraitutasuna izatea eta ukipen-esperientzia eskaintzea, irudietako azalerak osatzeko asmoz. Horrexegatik erabaki dut argazkiak inolako kristalik gabe erakusgai jartzea.

El título de esta exposición se me ocurre al leer un artículo sobre un movimiento londinense llamado More than weeds*, un grupo de personas que se dedica a escribir con tiza en las aceras los nombres de las plantas que nacen espontáneamente en las grietas y los rincones más inverosímiles de la ciudad y a organizar recorridos guiados para que reparemos en ellas.*

Me doy cuenta, al leerlo, de que en muchas de mis fotografías el protagonismo lo tienen estas plantas silvestres, singularizadas sobre un fondo texturado por la pátina del tiempo, y de que, así como aquel movimiento reivindicaba su identidad botánica, yo las había convertido en el motivo plástico de mis obras.

Estas fotografías se han hecho, en general, en lugares corrientes, anodinos, por los que transitamos sin prestar ninguna atención, algunos de ellos caóticos y especialmente descuidados, como el espacio debajo de los puentes de una autopista.

Pero estas fotografías no documentan esos lugares. Toman de ellos los elementos estéticos, los fondos texturados, los recuerdos de la presencia humana en el graffiti borrado ya por el tiempo o las propias plantas creciendo libremente sin que nadie las controle, pero el resultado es, sin duda, todo lo contrario, al lugar donde han sido tomadas. En medio del caos y el desorden, buscan el equilibrio y la belleza.

Esta muestra, en el fondo, es una reivindicación de las pequeñas cosas, de lo humilde y cercano. Es una invitación a la pausa, a detenernos y a prestar una mirada consciente a elementos que a menudo nos pasan desapercibidos.

La exposición se compone de fotografías impresas en un papel de alto gramaje, superficie mate y textura de grabado. Era importante que el papel aportase corporeidad, tuviese continuidad con las texturas de las imágenes y ofreciese una experiencia táctil que complementase la contemplación visual de las imágenes. Por lo mismo he querido que las obras se expusieran sin ningún cristal.